



Enkarterri Open Lab /Fest

NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN BERRIKUNTZA SARIEN 1. edizioa ENKARTERRI OPEN LAB 2020

Sarien banaketa. Sareko gala: 2020ko uztailaren 23an, 12:00etan

1.- TESTUINGURUA

Enkarterri Open Lab /Fest delakoarekin ospakizuna eta sozializazioa piztu nahi ditugu Enkarterri eraldatzen ari diren eta nekazaritzako elikagaien arloan (eta haren balio-kate osoan) berrikuntzarako erreferentzia diren proiektu eta erakundeen inguruan.

Enkarterri Open Lab erakundeko kideok eskualdeko ekimenen arteko konexioa sustatu nahi dugu, baita haiek sektoreko erreferenteekin lotu ere. Badakigu kontatu eta aintzatestea merezi duten ekimenak daudela nekazaritzako elikagaien arloan, eta gure eskualdeko mugak gurutzatzea nahi dugu.

Proiektua Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatu du, Lankidetzan Berrikuntza Bultzatzeko Elkarlanean Programaren barruan, eta Enkarterrialde – Landa Garapeneko Elkarleak bultzatu du, Balmasedako udalarekin batera.

2.- HELBURUAK:

Enkarterri Open Lab Nekazaritzako Elikagaien Berrikuntza Sarien I. edizioaren helburuak hauexek dira:

- 1) Nekazaritzako elikagaien sektoreko enpresa-ekimen berritzaileak saritzea.
- 2) Nekazaritzako elikagaien sektoreko enpresa-ekimen berritzaileak ezagutaraztea.
- 3) Nekazaritzako elikagaien sektoreko enpresa-ekimenen arteko konexioa eta lankidetzak sustatzea.

3.- SARIA:

Nekazaritzako elikagaien sektoreko enpresa-ekimen berritzaile onenaren saria (sari bakarra).

Enkarterri osasun, ongizate eta jasagarritasuneko erreferente bihurtzeko potentziala du. Uste dugu nekazaritzako elikagaien sektorea berrikuntza eta garapen ekonomikorako iturri argia dela. Desberdintasunak markatzen ari diren enpresa-ekimenak ari gara bilatzen, eta haien ekintzak sustatu nahi ditugu; horrela, Enkarterriin duten inpaktu ekonomiko eta soziala nahiz ingurumenekoa handituko dira.

Zer lortuko du ekimen irabazleak?

- Bi mila euroko (2.000 €) sari ekonomikoa.
- Ekimenaren aintzatespen publikoa eta ikusgarritasuna.

4.- DEIALDIAREN OINARRIAK:

4.1.- Nork har dezake parte Enkarterri Open Lab 2020 Nekazaritzako Elikagaien Berrikuntza Sarien lehen deialdian?

Deialdia irekita egongo da bai 2019ko azaroaren 27an, 28an eta 29an Balmasedan ospatu zen Nekazaritzako Elikagaien Lehen Bootcamp delakoan parte hartu zuten enpresentzat eta bai nekazaritzako elikagaien sektoreko balio-katea osatzen duten edozein enpresarentzat, baldin eta egoitza edo jarduera Enkarterriko eskualdean badute eta deialdiaren oinarriak betetzen badituzte. Enpresa-ekimen berritzailea balio-katearen edozein fasetakoa eta edozein berrikuntza motatakoa izan daiteke (prozesuan, produktuan, antolakuntzan, teknologian, banaketan, etab.).

4.2.- Zein baldintza bete behar dira sarirako hautagaitza aurkezteko?

- Enpresak lotura eduki beharko du Enkarterriekin, eta egoitza soziala eskualdean eduki beharko du, edo bestela, jarduera bat lurraldean.
- Enpresak frogatu beharko du ekimen berritzaile bat garatzen ari dela, eta emaitza eta ebidentzia zenbagarriak egiaztatu ditzakeela, baita Enkarterriko inpaktu erabakigarri ekonomiko eta soziala eta ingurumenekoa azaldu ere.
- Enpresak gutxienez bi urteko antzintasuna izan beharko du osaera-datatik sarirako hautagaitza aurkezteko den egunera arte.
- Gutxienez enpresa finalistako edo sarituko ordezkari batek sarien banaketa-ekitaldira joateko konpromisoa hartu beharko du, baita Enkarterri Open Lab /FEST delakoari buruzko komunikazioan edo Enkarterri Open Lab /FEST delakoaren beste jardueri buruzko prestakuntzetan parte hartzeko konpromisoa ere, hala nola hedabideekin harremanetan jartzea.
- Enkarterri Open Lab /FEST delakoaren antolakuntzak dokumentazio osagarriaren eranskinak aurkezteko eskatu ahalko du.
- Enpresa hautagaiek euren taldeko pertsona bat izendatu beharko dute laguntza-prozesurako edo bilera presentzialetarako. Pertsona hori agertuko da hautagaitzaren galdetegiko harremanetako atalean.
- Enpresa irabazleak saria hautagaitzan adierazitako xederako erabiltzeko konpromisoa hartzen du.

4.3.- Hautagaitzak bidaltzeko epeak

- 2020ko uztailaren 10eko 15:00ak arte** jasotako eskaerak onartuko dira bakarrik.
- Proiektuaren webgunean (<http://openlab.enkarterrialde.eus/>) sarean argitaratutako formularioaren bidez behar bezala betetako eskaerak onartuko dira.

4.4.- Nola hartu daiteke parte?

- Parte hartzeko beharrezkoa da atxikitako galdetegia betetzea.

Enkarterri Open Lab Nekazaritzako Elikagaien Berrikuntza Sarirako Hautagaitzaren FORMULARIOA

- Enpresaren izena
- Helbide elektronikoa
- Hautagaitzarako prozedura osorako pertsona erreferentetaren harremanetarako datu pertsonalak (izena/abizena/telefonoa/helbide elektronikoa)
- Deskribatu laburki zure enpresa-proiektu berritzailea (gehienez 200 hitz)
- Azaldu proiektu berritzailea abiarazi zenuenetik lortu dituzun lorpen nagusiak (gehienez 100 hitz)

6. Zein froga aurkeztu ditzakezu zure proiektuaren izaera berritzailea egiaztatzeko? Zergatik jotzen duzu berritzailetzat? (gehienez 200 hitz)
7. Nolako ekarpena egin dio zure proiektuak Enkarterriko garapen ekonomiko eta sozialari edo ingurumenekoari, edo nola dago lotuta eskualdearekin? (gehienez 200 hitz)
8. Zein da zure proiektuaren erronka nagusia orain? Zein behar ditu zure proiektuak epe laburrera? (gehienez 100 hitz)
9. Zergatik uste duzu enpresak nekazaritzako elikagaien berrikuntza saria merezi duela, eta zer egingo zenuke harekin? (gehienez 100 hitz)
10. Gehitu zure proiektua hobeto ezagutzeko webgune, sare sozial edo artikuluetarako estekak (gehienez hiru)

Sinatuta:

Hautagaitza-formularioa bidaliz, enpresa hautagaiak baieztatzen du emandako informazioa egiazkoa eta zuzena dela. Halaber, baimena ematen du Enkarterrialde LGEak eta Enkarterri Open Lab delakoaren talde teknikoak, DOT Koop. S. enpresak osatutakoa, egokitzat jotzen duten informazioa eskatzeko, hautaketa-prozesuaren edozein etapatan zehar.

- b) Informazio osagarri osatutako eranskin bat gehitu ahalko da, gehienez ere 3 orrialdekoa, Arial 12 letra-tamainarekin eta lerroarte bikoitzarekin, malonso@enkarterrialde.eus helbide elektronikora bidalita, hautagaitzak aurkezteko epea amaitu baino lehen.
- c) Ez dira aintzat hartuko eskatutako datu guztiak aurkezten ez dituzten eta datu pertsonal oker, faltsu edo osatugabeak aurkezten dituzten hautagaitzak; horrez gain, oinarri hauetan zehaztutako baldintzak betetzen ez dituztenak ere ukatu egingo dira.

4.5.- Hautaketa-prozesua:

1. fasea: Izena emateko eta hautagaitzak jasotzeko epea sareko formularioaren bidez: **2020ko uztailaren 10eko 15:00ak arte.**
2. fasea: Hautagaitzen ebaluazioa, ziurtatzeko parte hartzeko baldintzak eta balorazio-irizpideak betetzen dituztela; ondoren, hautagaitza finalistak zehaztea.
3. fasea: Epaimahaiaren ebazpena, hautagaitzak ebaluatzeko proiektuen balorazio-irizpideen arabera. Epaimahaiak proiektuak 1etik 5era puntuatuko ditu, balorazio-irizpideak betez. Puntuazio handiena lortzen duten proiektuak finalista bihurtuko dira, eta horien artean epaimahaiak saritua hautatuko du.
4. fasea: Sarien banaketa, SAREKO EDO BIDEOKONFERENTZIA bidezko ekitaldi publiko batean, non proiektu finalista guztien lana aintzatetsi eta ezagutaraziko den eta Enkarterri Open Lan /FEST sarien ekimen irabazleak jakinaraziko diren. **Sarien banaketa 2020ko uztailaren 23an izango da, google meet plataformaren bidez.**



4.6.- Balorazio-irizpideak:

- 1.- **Berrikuntza soziala** > Pertsonen bizitzari eragiten dien arazo bati konponbidea ematea, modu berritzailean erantzunez. Ekimen frogatua, erakutsi dezakeena inpaktu eta eraldaketarako potentziala duela.
- 2.- **Kalitate ekintzailea** > Erabakigarritasun handia erakusten du helburuak lortzerakoan eta ikuspegiaren argitasunean, baita proiektuaren motor izaten laguntzen dien fokuan ere.
- 3.- **Zuntz etikoa** > Koherentzia eduki beharko du balioen, helburuen eta horiek lortzeko baliabideen mailan, eta eredugarriak izan beharko dira gizarte- eta enpresa-aldaketarako agente bihurtzeko.
- 4.- **GJHei ekarpenak egitea** > Proiektuak ekarpenak egiten ditu funtsezko hiru GJHetako bat lortzeko: osasuna eta ongizatea (3. GJH), kontsumo eta ekoizpen jasangarriak (12. GJH) eta industria, azpiegiturak eta berrikuntza (9. GJH).

4.7.- Epaimahaia eta Idazkaritza Teknikoa

Epaimahaia nekazaritzako elikagaien sektoreko, ekintzailetzako eta berrikuntzak ezagutzak dituzten profesionalak osatuko dute. Idazkaritza Teknikoa Enkarterrialde LGEaren esku egongo da, DOT Koop. S. enpresaren ikuskaritzarekin. Hautagaitza aurkezterakoan zalantza izanez gero, kontsultak egin daitezke helbide elektroniko honetan: malonso@enkarterrialde.eus.

4.8.- Baldintzak eta termino legalak onartzea

Deialdi honetan erregistratzean baldintza guztiak onartzen dira.

Enkarterrialde LGEak eta Enkarterri Open Lab delakoaren babes teknikoko taldeak, DOT Koop. S. enpresak osatutakoa, deialdiaren datak eta baldintzak edozein unetan interpretatu eta aldatzeko eskubidea izango dute, baita horiek indargabetzekoa ere, betiere horretarako arrazoi justifikatuak badaude. Edonola ere, bide horietatik oinarrien aldaketak edo, hala badagokio, deialdiaren indargabetzea jakinarazteko konpromisoa hartzen dute, hautagaitza guztiek informazio horretarako sarbidea izan dezaten.

Enkarterrialde LGEak eta Enkarterri Open Lab delakoaren taldeak, DOT Koop. S. enpresak osatutakoa, ez dute inolako eskubiderik proiektu berritzaile sarituarengan. Hori hautagaitza aurkeztu duen enpresarena izango da erabat eta eskusiboki.